



BETERRIKO ALDIZKARIA



AIURRI

1996ko azaroaren 15a. 46. zenbakia. Doain banatzen da.



**PRESOAK
EUSKAL
HERRIRATZEAREN
AUZIA**



Etxebizitzen salerosketa
075489
 Kaleberria, 58 ☎ 69 08 94 BILLABONA
 A.E.P.I. 286



- Saloia
- Sukaldea
- Komuna
- 2 bainu
- Ateripea
- 3 eta 4 gela
- 75 m² ko garajea
- Sukaldea erdi hornitua
- Poliuretanozko leiho - atek
- Kalitate handiko materialak

ZIZURKILKO
 parajerik
 ederrenetako
 batean
 (P. M. Otaño
 ikastetxearen ondoan)

ZATOK konpromezurik gabe !!

ASTEASU
 J A T E T X E A
 ☎ 69 37 08

- EGUNEKO MENUA
- MENU BEREZIAK
- KARTA ZERBITZUA
- BOKATAK
- KAZUELITAK
- PINTXOAK
- ENPRESA BILERAK
- BATAIOAK
- JAUNARTZEAK



MIRARI
 ILEAPAINDEGIA

ELIZONDO PLAZA, 2
 ☎ 590162

ANDOAIN



ONDARRETA
 TABERNA

*Plater konbinatuak
 Ogitaratekoak
 Pintxoak*

*Arkume eta
 txerrikume erreak
 enkarguz*

Ondarreta 9, behea ☎ 59 36 27 ANDOAIN



TXERRIKIEN
 BANATZAILE
 ETA
 EKOIZLEA

ENPRESEN ZENTRUA

Ama Kandida z/g - 307. Moduloa - ☎ 592923
 ANDOAIN



Kaleberria, 9 ANDOAIN TELF. 59 35 49

Loitzo

Gabonetarako opariak
 erostera zatoz gure

MERKEALDIETARA

Errota kalea, 3 - ☎ 69 21 35 BILLABONA



BORDA
 Jatetxea

A N D O A I N

AIURRI

☎ 30 07 32

FAxa. 30 07 31

1. **AURKIBIDEA.**
AIURRITARRAK
Joxin Azkue. Jon. hain urrun eta hain gertu
2. **GALDEZKA.**
Zein izan da zinemari ikusi duzun azken filmea?
3. **ADUNA**
Intsumisioari buruzko hitzaldia.
- 4-5-6. **ANDOAIN.**
Hamasei urte hiriko autobus zerbitzua eskaintzen. Galindo pertsona "non grata". Postalak egiteko argazkiak aukeratu dituzte. Prezio publikoak igo egingo dira.
7. **ASTEASU.**
Lan munduari buruzko ihardunaldiak.
- 8-9. **BILLABONA - AMASA.**
Amasako oilasko jokoa. Induraini buruzko argazki erakusketa.
10. **ZIZURKIL.**
Gaztetxea handitzeko zain.
11. **ENPRESA.**
Iztuitza Garden, loreak salgai.
- 12-13. **ERREPORTAIA.**
Euskal presoak Euskal Herria.
- 14-15. **ELKARRIZKETA.**
Txirringularitza profesionala billabonan.
- 16-17. **KULTURA.**
Larramendi kultur bazkunaren III biltzar nagusia.
18. **ERRETRATU ZAHARRA.**
19. **ZER BERRI? / LEHIAKETA.**
20. **AGENDA**

Argitaratzailea: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. **Egoitza orokorra:** Dr. Huizi kalea 15, 1-esk. 20140 ANDOAIN (Gipuzkoa) ☎ 30 07 32 Fax: 30 07 31 **Babesleak:** Aduna, Andoain, Asteasu, Billabona, Larraul eta Zizurkilgo Udalak. **Zuzendaria:** Ainhoa Oiartzabal. **Maketatzailea:** Iñaki Garmendia. **Erredakzioa:** Ainhoa Oiartzabal eta Ainhoa Aiartza **Argazkiak:** Manu Mujika, **Komikia:** Ramón Bernaras **Publizitate arduraduna:** Fernanda Irazu **Administratzaile-eragilea:** Xabier Irisarri. **Inprimategia:** Gertu Kop. E. (Zubillaga, Oñati). **Filmaketa:** VideoCys. Donostia. **Lege-gordailua:** SS-202/94 **ISSN:** 11354-0614 **Tirada:** 3.500 ale.

OHARRA: Bazkun argitaratzaileak ez du beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.



Jon, hain urrun eta hain gertu



JOXIN AZKUE

Etorri berria naiz Kanaria irletatik. Joan-etorri labur bat egin dugu emaztea eta biok han espetxeratua dagoen Jon Tapia bisitatzeko (lehendabizikoz, urte mordoan badarama ere), eta burutu dugun elkar-ikuste honek, berak urruti hartan eta guk geuk gertu honetan daramagun horren bizi-iharduera desberdinei buruzko hausnarketa gaita eskaini dit.

Bihotza baino, burua erabiltzen saiatu naiz Jonen egoera aztertzekeo garaian. Baina oso zaila egiten zait. Eta hainbestetan entzun dudak eguneroko hori, Euskal Herriak horren urrun espetxeraturik egotea alegia, nik neuk ikusi eta sentitu ahal izan dut bidai honetan. Jon asko daude espainiar estatuan zehar sakabanatuak eta isolatuak. Eta horietako Jon bakoitzak bere historia eta bere drama darama arrastaka. Nik, Jon honen egoera ezagutu dut une batez gertu-gertutik. Beste espetxe batzuk bisitatuak ditut, ez asko, egia esateko. Baina sekula ez bezala ikusi dut bidai honetan hain urruti egon behar horren miseria. Hasteko, dirua: pezetzen xehetasunetara jaitsi beharrik ez dago, hemendik harainoko joan-etorriek bere familiari zer nolako danbatekoa ematen dien konturatzeko. Noizean behin ailegatuko garenontzat zerbaite suposatzen badu, pentsa dezagun han-hemenkako urrutietan sakabanaturik dagoen Jon bakoitzaren familiak jasan behar duen diru-odolustutzea. Eta distantzia, kilometroak? Asteburu osoak bidaiatzen, orduak eta orduak trenetan eta autobusetan, gatake gehoki-zoko ilunetan pasatuz, beti edozein unetan gerta daitekeen istripu horren beldurrez... bakoitzak bere etxeko Jon ikusteko ilusioz. Zergatik zigortu familiak?

Azkenik, bisita bera, elkar ikusteko unea, Kristala eta barroteak tarteko, baimendutako berrogei minutu horietan, ez gutxiago agian, baino ez gehiago, ziur. Bihotzek diotena begi gorrituetatik ateratzeko, ukitu gabe elkar besakartzeko, hain urrun geratu den etxetik ekarritako amasa trukatzeko... Eta beti ilusio berdinak: zer moduz etxe-koak? nola dira haurrek? noizko libre? noizko behintzat Euskal Herrian? Nik belauniko eman nuen bisita guztia. Eta ez Errosario Santua errezatzen ari nintzelako, ez, horrela eta bakarrik horrela, belauniko, belarria kristaleko zulotxoetan itsatsirik, lortzen nuelako entzutea gutxi gorabehera Jonen esan nahi zidana. Traketsa bazen ere, gutxienezko elkarrizketa eramateko era bakarra. Makurtua nengoen eta makurtua eta umiliatua sentitu nintzen. Ezagutzen nauenak badaki ez dudala gezurrik idatziko, are eta gutxiago Aiurri eta horrelako gai baten inguruan. Neuk baieztatu eta une batez bizi dudana da kontatzen ari naizena. Ez ginen goi-mailako politikaz aritu. Zizurkilgo berri jakin nahi zuen. Hemengo kontuen egarri ase-ezina zen berea. Garrantzia saiatu ginen elkar ulertzen, esaten genuen guztia grabatzen ari zirela ziur jakiteari inongo garrantzirik eman gabe. Laster Euskal Herriantx hurbilduko zutenaren susmoa igortzen saiatu ginen, ez dakit horrela sinesten edo sinestu nahi genuelako. Guk, gerorako ilusioa adierazi nahi izan genion, eta egoera latz horretan inolaz ere espero ez zitekeen aurpegi orekatua, lasaia, tinkoa erakutsiz erantzun zigun Jonen. Horrelako bidai batek noizbait pena merezi izan badu, hau izan da. Zizurkilgo Udal Batzordearen leloak dioten bezala, "Euskal Presoak Euskal Herria". Ekarri behar ditugu. Pertsonaren eskubideaz sinesten dugunontzat, horiek ez dira gizakia edukitzeko baldintzak. Besarkada bat Jon Tapiari, hain urruti gorputzez, hain gertu bihotzez.



ZEIN IZAN DA ZINEMAN IKUSI DUZUN AZKEN FILMEA?

Zinemara joateko ohitura galduz doa. Telebista eta bideoaren eraginez omen da hori, diote adituek. Egun, zinemaren eman berri duten pelikula berehala izaten dugu bideoan ikusteko moduan. Eta hori, jende askorentzat behintzat, erosoagoa da; etxean pelikulak lasai-lasai ikustea, alegia. Hala ere, bada oraindik pantaila

handiko irudiek nahiz soinuek erakartzen duten ikusle bat edo beste; zinemaren estrenatu berri dituzten pelikulak ikustera azkar asko joaten direnak, hain zuzen. Izan ere, euriak eta hotzak astintzen duen neguko egunetan zinemara joatea eta amets egitea bezalako gozamenik ez dago askorentzat.



Ramon Otaegi, langilea. Aduna.

Inoiz ez naiz joan zinemara. Telebistan ere pelikula gutxi ikusten ditut; kirola eta herri kirolak ikustea gustatzen zait. Inoiz ez diot filme bati kasu askorik egin, ez dut pelikulak ikusteko ohiturarik.



Oscar Saezsoia, langilea. Billabona.

Eraserizan da zinemaren ikusi dudana azken pelikula, baina urte asko igaro dira filma horren eta zinemaren aurrez ikusi nuen azken pelikularen artean. Gutxitan joaten naiz zinemara, ez daukat ohiturarik. Behar bada, pelikulak gauzez botatzen dituztelako ez naiz joaten.



Txomin Etxeberria, langilea. Andoain.

Antonia's line izan da ikusi dudana azken pelikula. Duela hilabete ikusi nuen, eta filme polita iruditu zitzaidan. Normalean hilean behin joaten naiz zinemara; Donostiaraino joan behar izaten dudalako ez naiz joaten gehiagotan. Gustatzen zait zinemara joatea.



Josune Iarza, umezaina. Zizurkil.

Ez naiz gogoratzen. Izan ere, duela sei hilabete joan nintzen azkeneko aldiz zinemara. Gustatzen zait zinemara joatea, baina hala ere, pelikulak ez zaizkit gehiegi gustatzen. Telebistan adibidez, filme gutxi ikusten dut.



Ainere Eizagirre, ikaslea. Asteasu.

Robin Hood. Anoetako belodromoan ikusi genuen, eta asko gustatu zitzagun. Etxean pelikula asko ikusten dut, baina zinemara batzutan bakarrik joaten naiz. Askotan, telebistan, albisteak ikusten ditut.



Imanol Aizpurua, ikaslea. Andoain.

Lau urte bakarrik ditut, inoiz ez naiz zinemara joan. Telebistan eta bideoan ikusten ditut marrazki bizidunak; Vicky bikingoa, Asterix eta Obelix, Pinotxo, dinosaurioak ... Zinemaren marrazki bizidunak ikusiko nituzke.

ALFARO
J A T E T X E A
EGUNEROKO MENUA
Etxeberrieta auzunea
☎ 59 40 27 **ANDOAIN**

XIXORI
BELARDENDA
DIETETIKA ZENTRUA
KONTSULTA NATURISTA
Ondarreta, 9 - ☎ 59 01 99 - 20140 **ANDOAIN**

INTSUMISIOARI BURUZKO HITZALDIA

Adunako Udala intsumiso izan arren, oraingoz, ez dago gazte intsumisorik

Azaroan egiten dira gazteak soldaduskara joateko zozketak. Hori dela eta, soldaduskara joateko deituak izango diren gazteei nola herritarrei informazioa eskaintzeko, intsumisioari buruzko hitzaldia egin zen Adunan. Euskadiko gazte kontseiluko Iñaki Otamendi eta Kakitzat talde antimilitaristako abokatuak aritu ziren intsumisioak azken urteotan izan duen garapena, kode penal berriak ezarriko dituen zigorrak, eta ejerzito profesionalari buruz hitz egiten.

Duela hamar urte, nahiz horren aurka egon, gazte gutxiak joaten ziren soldaduskara Otamendiren esanetan. Izan ere, soldaduskara joaten ez zirenak gogor zigortzen zituzten orduan. *"Baina soldaduska egin nahi ez zuten gazteak ngaritu eta elkarri egin ziren, eta ondorioz, Gobernua lege berri bat egitera behartu zuten"*, azaldu zuen Iñakik. Lege horren ondorioz, kontzientzia eragozle egiteko aukera eskaintzen dio Gobernuak soldaduska egin nahi ez duen gazteari. Eta soldaduska egin beharrean, hamaika hilabetez prestazio sozial bat egin beharko du gazte horrek. *"Lege horrek soldaduska armarik gabe baina beste nolabait egitera behartzen duenez, intsumiso egiten da ejerzito eta militarismoaren aurkako jarrera*

azaldu nahi duen gaztea". Iñakiren esanetan, intsumiso egiten dira egun Euskal Herriko gazte asko, eta intsumiso egiteko, hori dioen eskutitz bat bidali behar dute Loiolako kuartelera soldaduskara joateko eskutitza jaso bezain laister.

Kode penal berriaren zigorrak

"Tolosako epaitegian hartuko diote lehenengo deklarazioa intsumisioari, eta gero, Donostiako epaitegian deklaratu beharko du", azaldu zuen Kakitzateko abokatuak, legeak intsumisioa gaizkile moduan hartzen duela gogoraraziz. Lehen bi urte, lau hilabete eta egun bateko gartzela zigorrak ezartzen zitzaizkien intsumisioei. *"nabiz eta azkenean, epaile bakoitzak berak nahi zuen gartzela zigorra ezarri intsumiso bakoitzari. Gartzela zigorra ezarri ez ez zaiton intsumisorik ere bada Gipuzkoan"*. Intsumisioak gartzelan sartzea ordea, ez da batera eroso

agintarientzat, eta ondorioz, kode penal berria egin dutela esan zuen Otamendik. Kode penaleko zigorrak gogorrenak administrazio publikoan lan egiteko aukera eta dirulaguntzak jasotzeko eskubideak galtzea da. Ondorioz, administrazioan lan egiten ari diren langileak intsumisioen alde jartzera gonbidatu zituzten bi hizlariak: *"Herriko alkateak edota ikastetxeko idazkariak erabakiko du azkenean intsumisioei lana nabiz beka ez ematea. Beraz, intsumisioen alde jokatzeke, eta legeak dioena ez betetzeke eskatu behar diegu"*.

2004. urterako ejerzito profesionala

Ejerzito profesionalaren gaiari buruz ere hitz egin zuten, eta 2004. urterako jarriko dutela esan zuten. *"Arazoa ordea, ez da derrigorrezko soldaduska kentzean bukatuko; ejerzitoarekin bukatzea lortu behar dugu"*, esanez amaitu zuten.



Jendeak ere hartu zuen parte hitzaldian

**FRANCISCO
MENDIKUTE
KARATEGIA**



Kaletxiki, 15 - ☎ 59 02 58 - ANDOAIN



• **kutxa fundazioa**
• **fundación kutxa**

- gipuzkoa donostia kutxaren
- gizarte-ekintza
- obra social
- de la caja gipuzkoa san Sebastián

Argitarapen honen edizioako laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:

HAMASEI URTE HIRIKO AUTOBUS ZERBITZUA ESKAINTZEN

Geltoki seinalizatuak falta dira Urpa autobus zerbitzuaren esanetan

1980an hasi zen Urpa enpresa hiribarruko autobusean herritarrak alde batetik bestera garraiatzen. Hogei urteko lizentzia eman zitzaion Urpari, eta beraz, 2000 urtean bukatuko da kontratua. Urte horietako gorabeheren berri izateko Urpa enpresara jo dugu.

Urpa enpresako Juanxo Pagolak hiribarruko autobusa erabiltzen duten herritarrak zeintzuk diren adierazi digu. Bere esanetan, autobusa gehienbat jubilatuek erabiltzen dute: *"jubilatuek bidaia do bain egiten dute, beraz, inolako gasturik ez duen garraiobide ezin hobea da beraientzat. Horietaz gain, eskolako orduetan ama eta umeak dira autobusaren erabiltzaile nagusienak. Bidaiak 85 pezeta balio du eta hileroko bonoa eginez gero merkeagoa da"*. Hala ere, Juanxoren esanetan, ez da jende multzo handirik ibiltzen autobusean: *"Orain Sorabillan egingo dituzten etxebizitzak direla eta ea jende gehiago ibiltzen den!"*.

Hiribarruko autobus zerbitzuaren geralekuak eta ordutegia:

- | | |
|---------------------|--------------------------|
| 1.1. Karrika | 1.6. Santander banketxea |
| 1.2. Loidi taberna | 1.7. Udaletxea |
| 1.3. Danena taberna | 1.8. Kaletxiki |
| 1.4. Txurreria | 1.9. Bazkardo dorreak |
| 1.5. Leizaur parkea | 1.10. Osasun zentroa |

Irteerak karrikatik kaletxikira:

08.15	11.15	15.15
08.45	11.45	16.15
09.15	12.15	16.45
09.45	12.45	17.45
10.15	13.45	18.15
10.45	14.45	

Irteerak Osasun Zentrotik karrikara:

08.30	11.00	15.30
09.00	11.30	16.40
09.30	12.10	17.10
10.00	13.00	18.00
10.30	15.00	18.30

Pagadigaña hilerrira zuzendutako zerbitzua:

Asteazken eta larunbatetan. Irteera Sorabillatik, Goikoplazatik pasatuz goizeko **11.15**etan. Hilerritik Sorabillara **11.45**etan.

Autobusak geralekuak izan arren, ez du geltoki jakinik. Ondorioz, arriskua handia izaten da: *"Kaletxikin ez dakit nola ez den istripu larririk izaten, umeak korrika ateratzen baiti-*

ra eskolatik. Geltokiak jartzea behin baino gehiagotan eskatu dugu eta ez dizkigute jartzen; horrek basarre nauka. Ezin da edonon aparkatu edota geratu".

ANDOAINGO BIZTANLEGOA JAITSIZ DOA

Maiatzaren lehen egunera bitarteko datuekin osaturiko errolda berria onartu da azken udal batzarraldian. Erroldaren datuei begiratu gero, biztanleriaren kopurua jaitsiz joan da urtetik urtera. Egun, 14.552 biztanle ditu Andoainek.

Biztanleen Udal Errolda

••ETXEBIZITZAK••

BETEAK	HUTSAK	LOKALAK	EGOERA TXARREAN
4.379	505	32	76

••BIZTANLEAK••

BIZTANLEAK		BIZTANLEAK		BIZTANLEAK		GIZTANLEAK
GIZONEZKO	EMAKUMEZKO	GIZONEZKO	EMAKUMEZKO	GIZONEZKO	EMAKUMEZKO	
7.165	7.230	87	70	15	19	14.552

GALINDO PERTSONA "NON GRATA"

IU-EBren mozioa onartu du udalbatzak

Nicolas Pérez Barbonen hitzetan, Enrique Rodríguez Galindo, Goardia Zibilaren jeneral ohia gartzelatik atera izanak egonezina eta alarma soziala sortu du andoaindarrengan. Lasa eta Zabalaren atxiloteta eta hilketaz akusatu ondoren, zigorrik gabe egotea eta jasotzen duen faborezko tratua salatu zuen IU-EBk udalbatzarrean.

Galindo aske egoteak sorturiko hasarrea publikoki azaldu. Justiziako Tribunalari Galindoren askatasuna berriz aztertzea, eta Galindori gainerako presoek ematen zaien tratua bera ezartzea eskatu zuen Nicolas Pérez Barbonek. Era berean, Gobernuak Cesid-eko paperak sekretupetik ez ateratzeko erabakiarekin desadostasuna adierazi zuen Andoaingo Udalbatzak. PPK aurkakoa bozkatu zuelarik. Onartutako idatzia Audientzia Nazionalari, Galindo berari eta Eusko Jaurlaritzari bidaltzea onartu zuten azkenik. PPKo zinegotziaren esanetan, funtzionarioek ez dute erantzukizun politikorik, eta beraz, ez dute ongi ikusten Galindo pertsona "non grata" izendatzea.

Adore taldearen hitzaldia

Andoaingo Askagintza taldeak antolatuta, Adore plataformak hitzaldia eskaini zuen Andoainen urrian. Zenbait talde, abokatu eta beste hainbat lagunek osaturiko Adore plataformaren sorrera eta bere helburuak zeintzuk ziren azaldu zituzten hitzaldian. Horrela, Rodríguez Galindo jeneral ohia narkotrafikoan izan duen inplikazioa agertuz eta Donostiako Epaitegietan zenbait salaketa jarri ondoren, ikerketek aurrera egingo dutelakoan daude Adoreko kideak. Ander Mujika abokatuak eta Txus Congil Adoreko bozeramaileak azaldu zutenaz, Euskal Herrian ez dago inor Galindo errugabea dela pentsatzen duenik: "Gauza askorengatik salatu dute Galindo, baina minik bändiena narkotrafikoarengatik salatzean egiten diegu".

EUSKARAZ BAI

Euskara bultzatzea du helburu

Udaleko euskararen normalkuntzarako lantsailak, herritarrek eta udalak elkarri euskaraz egiteko kanpaina azaroaren 15ean jarriko du martxan. Etxez etxe kanpainaren nondik norakoak esplikatzeko eta erantzunak jasotzen arituko dira. Horrezaz gain, herritarrek gutun, foileto eta administrazioko hiztegitxo bat ere jasoko dute postaz. "Euskara indarrean jarriko dugu... zuk indar egiten badiguzu!" lemapean, udalarekin harremanak euskaraz izan nahi dituztenek izena eman beharko dute. Bestela, udaletxeko euskara zerbitzura deitu eta bertan izena eman

POSTALAK EGITEKO ARGAZKIAK AUKERATU DITUZTE

Laurogeita zazpi argazki aurkeztu dituzte lehiaketara

Andoaingo postalak egiteko udalak eginiko lehiaketara aurkezturiko argazkien artean hiru argazki hautatu dituzte. Argazkiak postal bihurtzeaz gain, sarituek 30.000 pezeta jasoko dituzte.

Udaleko kultura batzordeko buruak, kultura batzordeko zinegotziek, eta artxiboko na-hiz kulturako arduradunek osaturiko epaimahaiak hiru argazki aukeratu ditu postalak egiteko. Argazkiak Manu Mujika Lasa **Aiurri** aldi-zikariko argazkilaria eta Jose Ignacio Unanuerenak dira. San Martin parrokiaren dorrea ikusten den TXURIA izeneko argazkia izan da Manu Mujikaren argazki saritua. Argazki hori erakusketa ikustera joan direnei ere asko gustatu zaie. Beste bi argazkiak, Unanibiko zubiaren argazkia, PASEO izenekoak, eta Andoaingo ikuspegi orokor bat azaltzen duen ATARDECER argazkiak, Jose Ignacio Unanuerenak dira. Accesit moduan laugarren argazki bat aukeratu duten arren, oraingoz, ez dute postal bihurtuko. MIRANDO EL PASO DEL TIEMPO izeneko Izturitzaga dorrearen argazkia udaletxeko artxiboan geldituko da oraingoz.

Lerro hauen bitartez zorionik beroenak sarituei.



EGUZKI GIPUZKOAKO UR PATZUERGOAREKIN DESADOS

Oria ibaiaren erdialdeko saneamendu proiektuaren aurka azaldu da

Eguzki talde ekologistak Oria ibaiaren erdialderako Gipuzkoako Ur Patzuergoak proposatu duen saneamendu proiektuarekin ados ez dagoela azaldu du prentsaurrean. Araztegia Oria ibaian ezartzearen eta Lasarte-Oria nahiz Usurbilgo saneamendua zehaztu gabe egotearen aurka agertu dira Eguzkiko kideak.

Eguzkiko ordezkari den Garikoitz Plazaolak azaldu duenez, Lasarte-Oria eta Usurbilgo uren saneamendua Oria ibaian bertan egin beharko litzateke. Hala ere, oraindik ez da erabaki ur zikinak Loiolako araztegiara edo Oria ibaiaren erdialdera eramango diren. Oraindik zehaztu gabe dagoen kontua da hori. Horrezaz gain, Garikoitzen hitzetan, mankomunitatea eta patzuergoaren araztegiak ez daude hondakin kontaminante guztia jasotzeko prestatuak. Eguzki taldearen ustetan Oria erdiko habitata aberatsa da oso, eta ondorioz, araztegia ezartzeak bertan bizi diren animalia eta landareen desagerpena ekarriko luke. Horregatik, Eguzkik Oria erdialdea babes bereziko gune gisa mantelzearen alde azaldu da.

Bienbitartean, Gipuzkoako Ur Patzuergoak, saneamendu planaren berri emateko "Kaixo ura" izenburupeko erakusketa ibiltaria antolatu du, eta urriaren bukaeran herrian izan zen. Horrela, egin beharreko lanen finantziakzioa eta uraren aurrezpena nahiz erabilera egoki baten garrantzia azpimarratu zituzten bertan.

PREZIO PUBLIKOAK IGO EGINGO DIRA

IU-EB eta HBk prezio publikoak igotzearen aurka bozkatu zuten

Hurrengo urtetik aurrera prezio publiko altuagoak ordaindu beharko dira udalak eskainiko dituen zenbait zerbitzu jasotzearen truke. Igoera horien arrazoiak, beste herrietako prezio publikoak aztertu ondoren Andoaingo Udalaren prezio publikoak baxuenera direla eta kostuek gora egin dutela izan dira.

PSE-EE, EAJ-PNV eta EA-ren aldeko botuekin onartutako zenbait prezio publikoen igoera honako hau izango da:

- Trakzio mekanikoa duten ibilgailuen gaineko zerga %5a garestiago.
- Zaborra jasotzeagatik %10a garestiago. Herritar bakoitzak 3.280 pezeta ordaindu beharko du.
- Hileta zerbitzuak %5a garestiago.
- Autotaxi eta alkilerreko ibilgailuen lizentzia %5a garestiago.
- Edateko ura %10a garestiago.
- Musika Eskola %15a garestiago.
- Makaldegiko merkaturian saltegia jartzea %5 garestiago.
- San Juan Bautista Zaharren egoitzan bizitzeak hilean 85.500 pezeta balio du.
- Kiroletako udal patronatuan urteko txartel familia bakoitzak 20.300 pezeta kostako da. Bakarkako txartel bakoitzak 13.000 pezeta.


Juan Joxe Petrikorena HBko zinegotzia aske

Espainiako gartzela ezberdinetan zazpi hilabete espetxeratuta egon den Herri Batasunako zinegotzia, bi milioitako fidantzapean aske utzi dute. Herri Batasunak dirubilketa kanpainari ekin dio fidantza horri aurre egiteko, eta, beren esanetan, Petriren atxiloketa Ertzaintzaren okupazioaren ondorioa eta aitzakia baino ez da izan.

HBko zinegotzi izaten jarraituko du

Herrian ongi etorri egin zioten bere lagun eta bizilagunek hilaren bian. Bertan, Petrikorenak, gartzelan geratu direnen egoera azaltzeko eta beraiek omentzeko aukera izan zuen. Epaiketaren eguna bitartean, Petrikorenak kultura eta euskara batzordeetan HBko zinegotzi izaten jarraituko du.

Arg. J. I. Unanue



Eguzkiko ordezkaria Garikoitz Plazaola

LAN MUNDUARI BURUZKO IHARDUNALDIAK

Herriko langabeei zuzenduriko bi ikastaro izango dira

Nork bere enpresa sortzeko edo beste enpresaren batean lana aurkitzeko behar dituen baliabideen berri emateko bi ikastaro antolatu ditu Asteasuko Udalak. Lehenengo ikastaroa hilaren 18 eta 20ean emango du Xabier Arruti beizamarrak, eta autoenpleguari buruzkoa izango da. Aza


roaren 25 eta 27an berriz, Ana Olazabal sikologak enpresa batetara lan bila joateko zein jarrera erakutsi behar den eta dauden kontratu mota ezberdinak zeintzuk diren azalduko du. Ikastaroak Kultur Etxean emango dira, arratsaldeko zazpi t'erdietatik bederatzi t'erdietara.

Bi ikastaro horietan enpresa bat antolatu nahi dutenek, lana aurkitzeko zailtasunak dituztenek edota oro har informazioa jaso nahi dutenek har dezakete parte. Izen-ematea Kultur Etxean egin behar dute.

Ikastaro praktikoak

Autoenpleguari buruzko ikastaroan, enpresa batek izan dezakeen etorkizuna aurrez ezagutzeko aztertu behar diren faktoreak zeintzuk diren azalduko dute, besteak beste. Gainera, enpresa berri bat sortzeko zein paper bete behar diren, non eta beste zehaztasun batzuk erakutsiko dituzte ikastaro berean. "Enpresarik sinple eta txikiena osatzeko jarraitu behar diren pausuetak azalduko ditugu" esan digu bukatzeko Xabier Arrutik.

Ana Olazabalek emango duen ikastaroan egun enpresetan egiten diren kontratuak nolakoak diren, zein eskubide eta baldintza ezartzen dituzten, eta antzeko gauza gehiago aztertuko dira. Horrezaz gain, lan bila joatean elkarrizketak nola egin behar diren edota *curriculumak* nola bete behar diren erakutsiko dute.



Informazioa jaso nahi duen edonor joan daiteke

HAURRENTZAKO EKINTZAK

Jolasak antolatuko dituzte azaroaren 23rako

Asteasuko guraso elkarteak eta Kultur Etxeak, haurrei zuzenduriko ekintzak antolatuko dituzte hilean bi larunbatetan. Antolatuko dituzten ekintzen artean, marrazki lehiaketa bat, ludoteka, eta antzeko jolasak dira oraingoz ziurtatu dituztenak. Larunbat arratsaldetan egingo dituzte ekintza horiek guztiak, eta batzuk Kultur Etxean burutuko diren arren, kalean ere egingo dira bat edo beste. Asteasuko haurrei jolaserako baliabideak behintzat ez zaizkie faltako hemendik aurrera.

HERCULES
Aseguruak ARGENTARIA
Amaia Kortajarena
 Bulandegi bidea, 6 - Telf. eta Faxe 69 37 34
ZIZURKIL

PATXINE JATETKEA


 GURE BEREZITASUNA: EUSKAL SUKALDARITZA ETA ETXeko POSTREAK
 Errementari, 1 - ☎ 69 10 25 - ASTEASU

AURRERA TABERNA
 Girorik ederrena gazteriarentzat!!
ZIZURKIL

AMASAKO OILASKO JOKOA

"Baserriz baserri oilaskoak biltzen aritzea da oilasko jokoaren grazia"

Datorren igandean amaituko dira San Martin egunean hasi ziren Amasako jaiak. Asteburu honetan gazte ugari igoko da Akelarre edota Izotz taldeak entzutera, eta nola ez, parrandatxo bat egitera. Hala ere, eta Amasarrentzat behinik behin, atzoko eguna izan zen jaietako egunik hoberena. Izan ere, atzo egin zuten urte askotako usadioa den oilasko jokia. Oilasko jokoaren berri gehiago izateko Amasako gazteekin elkartu gara.



Festetako ekintzarik nagusiena

Aiurri: Goiz hasi zenuen atzoko eguna, ezta?

Amasako gazteak: Goizeko seiretan. Hirurogei lagun inguru elkartu ginen Billabonako Ongi Etorri tabernan gosaltzeko. Gosaldu ondoren, suziri batzuk bota eta baserriz baserri oilasko bila ibiltzeko bi talde egin genituen: talde bat Zizurkildik Andoain bitarteko baserrietara joan zen, eta beste taldea herri, Billabona eta Amasa ingurukoetara. Baserritarrez jantzita eta trikitilari nabiz dultzaineroen laguntzaz ibili ginen oilaskoak biltzen. Oilasko bilketan ibiltzea da oilasko jokoaren grazia. Izan ere, baserrietan jan-edan ugari eskaintzen digute, eta gainera, hiru afari inguru egiteko oilasko kopurua biltzen dugu.

Ai: Oilasko jokoaren ardatza, ordea, oilaskoari lepoa mozte da. Nola egiten duzue hori?

A.g.: Arratsaldeko lauretan hasten dugu urtero oilasko jokia herriko plazan. Ordurako jakiten dugu zenbat mutil (neskak normalean ez dira iriten) irtingo diren oilasko jokoan, bakoitzak mila pezeta edota oilasko bat jarri behar baitu aurrez. Partaide bakoitzarentzat oilasko bat gordetzen dugu. Oilaskoa zulo batean sartu eta lepoa bakarrik agerian duela uzten dugu bertan. Ondoren, lepoa moztuko dion mutilari begiak estali eta ezpata ematen diogu. Dantza eginez joan behar du oilaskoa dagoen lekuraino, eta hirugarren kolpean oilaskoari lepoa moztean lortzen ez

badu, beste nolabait saiatu behar du; hala ere, inoiz ere ez du oilaskoaren lepoa hortzekin moztuko. Oilaskoak biltzen aritu garenok eskaintzen dugun dantza-emanaldiarekin eta Aranzabin egiten dugun afariarekin amaitzen dugu eguna.

Ai: Sorabillan eta Adunan ere ospatzen dute oilasko jokia, berraz, nabikoa obitura txertatua da inguru hauetan. Hala ere, eta zuentzat, astakeria al da oilaskoari egiten zaiona?

A.g.: Umetatik ezagutzen dugun obitura da oilasko jokia, eta berraz, ez zaigu astakeria iruditzen. Behar bada, bohe litzateke oilaskoa bilik jartzea, baina obiturari jarraitzeagatik guk bizirik jartzen dugu. Astakeria bandiakoak ikusten ditugu egunero telebistan.

Talleres

denona s.a.l.

Lantegia

- INDUSTRIA AUTO ETA TURISMOEN KONPONKETA MAKAN-KOA
- TRANSMIZIOAK MEKANIZATU ETA OREKATZEA

MERCEDES-BENZ ZERBITZU OFIZIALA

SAIGA ELKTRIKOAK, AGRIKOLA BONOIFIZIA

TELVA ZERBITZU OFIZIALA

Madrid - Irun bidea, 144 km.
☎ 69 13 39 - BILLABONA

ZAINDU

Albaiteroak

24 orduko serbitzua

Kale Nagusia, 75
BILLABONA
TELF. 69 42 42

UNAI

oinetakoak


ume eta gazteentzako oinetakoak

Kale Nagusia 12 - Bi
BILLABONA
☎ 69 12 61

PASEALEKUA EGITEKO LANAK AMAITZEAR

Errepide zaharra berrituz ari dira egiten pasealekua

Kaleberriko 2. zenbakian hasi eta Adunako zubian amaituko den pasealekuko lanak laister amaituko dituzte. Lorategi eta zuhaitzez hornituko dute ibilbidea, eta oinezkoak nekatzen direnerako eserlekuak jarriko dituzte. Tokirik zabalenean hiru metroko zabalera izango du bideak, eta guztira, ia 800 metroko ibilbidea izango da luzeran. Bestalde, eta errepideko lan guztiak amaitzeko, kotxeak Billabonara sartzeko nahiz irteko bi errotonda egiten ari dira pasealekuaren alboetan. Bede-ratzi milioiko aurrekontua duten lanak dira, eta horietatik sei udalak jarriko ditu. Azkenik, aipatu Moyua enpresa ari dela Billabonako sarrerari beste itxura bat emango dion lanak egiten.



Berehala bukatuko dituzte lanak

MURIAS ENPRESAK BUKATUKO DU KIROLDEGIA

Kiroldegiko lanak egiteko aurkeztu duen proposa mena egokia eta nahikoa merkea delako, Murias enpresa aukeratu du Billabonako Udalak kiroldegiko lanak egiteko. Horrezaz gain, enpresa horrek kontratatzen duen langilegoa udalaren aldetik ezaguna delako eta lanak 1998 urtearen hasieran amaituko dituzte-lako burutuko du kiroldegia aipaturiko enpresak.

Herriz herri INDURAINI BURUZKO ARGAZKI ERAKUSKETA

Azaroaren 17ra arte ikusgai

Miguel Indurain txirrindulariaren ehun argazki daude ikusgai Gurea zinema aretoko erakusgelan. Orain artean eskoletako haurrak eta herritar ugari hurbildu dira erakusketara, eta bertan, Indurainen karrera profesionaleko argazkirik esanguratsuenak daude.

Desiderio Mondelo argazkilariaren argazkiak dira guztiak, eta Efe agentziako argazkilaria da bera. Txirrindularitzaren garai oparoetan hazi da egun Madrilen bizi den argazkilaria hau, eta ondorioz, txirrindularitzaren munduan lanean ari den argazkilaririk onenetakoa da. Lehen esan bezala, Efe agentziarako egiten du lan azken hamabost urteotan, eta Galizan eta Euskal Herrian aritu ondoren, orain Madrilen ari da lanean. Alor politikoko nahiz kiroletako argazkiak atera ohi ditu, baina Frantziako tour-ean eta beste zenbait txirrindulari karreretan egin duen lanagatik bihurtu da ezaguna Mondelo.



Desiderio Mondelok ateratako argazkiak

VIDEO CLUB AMETS



Bideo zintak alokatzen dira

CDak elkar trukatzeko eta saltzeko kluba

Txermin kalea, 21 behea BILLABONA

• Josteko behar duzun g...
• Azpiko arropa eta apa...

Garintza
mertzeria

Kale Nagusia 2 - Tlf. ...
BILLABONA

Mimos

HAUR ETA GAZTEENTZAKO MODA
JAIOBERRIARENZAKO
BEHAR DEN GUZTIA

BANATZAILEAK:


- BEBE CONFORT
- JANE
- ARRUE
- INGLESINA

Kale Nagusia, 29 - BILLABONA

GAZTETXEA HANDITZEKO ZAIN

Udala lanak egiteko behar den aurrekontua aztertzen ari da

Azkenean, badute gaztetxea Zizurkilgo gazteek. Herriko lokal bat baino gehiago gaztetxe izateko zorian izan dira, eta azkenean, Zentro jatetxeko lokal bat bihurtu dute gaztetxe. Udalaren proposamenez, irailaz geroztik, elizaren ondoan dagoen lokalean biltzen dira herriko gazteak. Oraingoz bilerak egiteko erabiltzen dute, izan ere, lokala nahikoa txikia da Kostata gazte asanbladako iritziz ekintza gehiago egiteko. Beraz, gaztetxea handitzeko lanak egiteko zain daude gazteak, eta udalak aurreratu digunez, hurrengo urtean hasiko dira lanak egiten, "egin beharreko lanak eta aurrekontua zehaztu ondoren".



Gaztetxea txukuntzen

Lizarain lantegia okupatu zuten gazteek hasiera batean gaztetxe eske. Horren ondorioz, asteasu bidean dagoen lokal bat eskaini zien udalak gazteei udal batzar batean. Baina lokal hori udalak salgai zuten, eta azkenean, gazteek eta udal ordezkariak parte hartu zuten udal batzar batean. Zentro jatetxeko lokala gaztetxe izatea erabaki zuten. Zizurkil Beheko jaietan hasi ziren lokal hori erabiltzen Kostata gazte asanbladakoak, eta orain, lokala margotzen eta txukuntzen ari dira. Hala ere, gazteek argi utzi digute lokal hori handitzeko lanak egiteko zain daudela ondoren ekintza gehiago antolatuzeko.

Alegiko gaztetearen aldeko ekimenak

Alegiko Udalak bertako gaztetxea bota nahi duela eta, ekintza ugari egiten ari dira egunotan Tolosaldeako gazte asanbladetakoa kideak Alegiko gaztetearen alde. Zizurkilgo gazte asanbladak ere parte hartu du batzuetan, eta aurreko asteburuan adibidez, Alegin egin zen jaialdi batean hartu zuten parte.

"EMAKUMEAK KARTELETAN" ERAKUSKETA HERRIAN

Azaroaren 18tik 20ra Zizurkil Beheko Kultur Etxean; azaroaren 21ean eta 22an, Iriarte Etxean

Emakundek antolatu duen erakusketa honetan emakumeen argazkiak, eta gehienbat, emakumearen inguruan egin diren ekintzen irudiak eta kartelak izango dira ikusgai. Horrela, Pekingo IV. konferentzia mundialari buruzko argazkiak, hainbat herrialde ezberdinetako emakumeren irudiak, eta Emakundek berak argitaratutako kartelak izango dira ikusgai erakusketan. Hogeita hamar kartel izango dira guztira, eta arratsaldeko bostetatik ihuntzeko zortziak arte egongo da zabalik.



Kale Nagusia, 29 ☎ 69 16 51
BILLABONA

- Eskolarako osagarriak
- Joko didaktikoak
- Irakurketarako liburuak
- Aldizkariak
- Paperdenda
- Opariak
- Gabonetarako osagarriak



OPTIKO - OPTOMETRISTAK

**EGUZKITAKO
BETAURREKOTAN
AUKERA ZABALA**

Kale nagusia 9-20140 ANDOAIN
☎ 59 18 17

illunja

KARROZERIA
MEKANIKA
ELEKTRIZITATEA



Ageltseritza
USABIAGA

Leku - Ona Etxea, 2 - Iharza auzoa
Tel. 69 35 60 - 69 34 35
20150 ZIZURKIL (Gipuzkoa)

Andoain

IZTUITZA GARDEN, LOREAK SALGAI

Lore-negutegiak ugaritu egin dira azken urteotan

Urte amaieran beteko du urtea Iztuitza Garden lore-negutegiak. Ibarratik erosten dituzte salgai jartzen dituzten landareak eta loreak, eta batzutan, Barzelonatik ere ekartzen dute zenbait lore. Bestalde, etxeko baratzekeo zenbait lore saldu arren, beraiek ez dute lorerik ekoizten.

Lore ihartuak eta artifizialak ere saltzen dituzte, lorontziak eta antzeko gauzez gain. Bestalde, zakur-jana eta baratzarako haziak jarri dituzte salgai; "oraingoz, gauza ugari eta ezberdinak saltzen ditugu, jendearen eskaeren arabera sailkatuko dugu aurrerantzean zer saldu eta zer ez" esan digu Iztuitza Gardeneko arduraduna den Migel Mari Oiarzabalek. Arte floralean diplomatua da Migel Mari, eta horretarako, lau ikastaro egin ditu Madrilan. Bertan ikasi ditu pertsona bakoitzari ongien egokitzen zaizkion loreak zeintzuk diren eta ondorioz, nolako lora-sorta egin behar dion pertsona horri. Hori da hain zuzen, Iztuitza Gardeneko berezitasuna.

Pertsona bakoitzarentzat lore-sorta

"Jendea gebienetan ideia jakin batekin etorri arren, nik, berari gebien egokitzen zaion lore-sorta eta loreak aukeratzeko gomendatzen diot" esan digu Migel Marik. Izan ere, eta ezkontzetan adibidez, andregaiaren soinekoa, ilea, altuera eta antzeko xehetasunak hartzen ditu kontutan Migel Marik loreak saltzerako orduan. Bestalde, egun, lore ezberdinez osaturiko lore-sor-

Domu Santuen egunean batek baino gehiagok erosiko zituen loreak hilerrian jartzeko, baina urtean zehar ere, gehitu egin dira loreak erosteko okasioak edota ohiturak. Iztuitza Gardenen, loreak, landareak eta jendeak eskatu bezalako lore-sortak saltzen ditu Migel Mari Oiarzabalek, arte floralean diplomatua den andoaindarrak.



Loreak ongi zaintzeko egokitutako negutegia

tak saltzen dira gehien. "izan ere, loreak elkar nabastuz osatzen dira lore-sortarik politenak" eta gainera, usainik ez dutenak: "usaina oso pertsonala da, eta beraz, jendeak nahiago ditu lore politak baina usainik gabekoak". Lore ihartuak eta landareak ere erruz saltzen omen dituzte Iztuitza Gardenen, gehiago irauten dutelako, nonbait. Lore-sorta batek gehiago irauteko, lorontziko ura maiz aldatu behar da, baina landareak bizirik gehiago man-

tentzeko, landare bakoitza ezagutu behar dela esan digu Migel Marik; "landarea gauza bizia da eta beraz, bakoitzaren beharrak ezagutu behar dira ongi zaintzeko".

Finean, geroz eta jende gehiagok erosten ditu gaur egun loreak, opari bat egiteko edota zerbait ospatzeko. Ondorioz, jende ugari dabil Migel Mariren antzera loreak saltzen eta prestatzen. "baserritarrak ere borretan bazi dira", amaitu du berak.

SOTO
 elektrizitatea
 • ELEKTROGAILUAK
 • MATERIAL ELEKTRIKOAK
 Santiago kalea z.g BILLABONA
 ☎ 69 11 73

ITAMAR
 Nagusia 28 - ☎ 69 39 31 - BILLABONA
 OPARIAK - BITXIAK - MODA
 Udarako kolorea ez galtzeko
SOLARIUM ZERBITZUA

BENITO
 HARATEGIA
 URDAITEGIA
 Kale Nagusia, 22 ☎ 69 11 49
 Arroa Kalea, 4 ☎ 69 13 50
 BILLABONA

EUSKAL PRESOAK EUSKAL HERRIRA

Ernio Beheko udalerriek antolatutako manifestazioa abenduaren 22an Billabonan

Duela urtebete Senideak erakundearen mozioa onartu zuten, Andoain izan ezik, Beterri Garaiko gainerako udalerriek. Euskal presoak Euskal Herrian biltzeko, zigorraren hiru laurdenak bete dituzten presoak baldintzapeneko askatasunean libre uzteko, eta gaixotasun larri bat duten presoak askatzeko eskatzen zuten mozioak. Andoaingo Udaltzarak EAJ-PNVek aurkeztutako mozioa onartu zuten, euskal presoak Euskal

Herrira gerturatzeko eskatzeaz gain, orduan bahituta zegoen J. M. Aldaiaren askatasuna eskatu zuten, hain zuzen. Udaltzara itxiak, enkarteladak, iskanbilak, pankartak, bilerak eta gertaera gehiago jazo dira urte betean gai beraren inguruan. Baina dirudieenez, Beterri Garaiko udal guztiek argi dute euskal presoak Euskal Herrian egoteko eskubidea dutela, eta hori gauzatzeko, udal batzordeak eratu dituzte.

Hamabi dira Beterriko gure eskualdeko presoak. Kanaria Irlak, Almeria, Valentzia edota Frantziako gartzelak dira beren bizilekuak. Kanaria Irlatan dago Jon Tapia preso zizurkildarra, eta 80.000 pezeta inguru kostatzen da bera bisitatzera joatea. Ordu luze-tako bidaiak egiten dituzte gainerako presoen senideek ere beste garteletara bisitan joateko. Bestalde, Joxe Mari Urdanpileta, Xabier Jauregi, Antton Otamendi, Pedro Galarraga eta Alex Uzkiano presoek zigorraren hiru laurdenak beteta edukí arren, preso jarraitzen dute oraindik. Horren guztiaren ondorioz, eta Senideak erakundeak dispersioa eta presoen eskubideen bortxaketa aspalditik salatzen zuelako, mozioak aurkeztu zituzten udal-txeetan. Presoak Euskal Herriratzera eta baldintzak betetzen dituzten presoak baldintzapeneko askatasunean libre uztea eskatzeaz gain, hori lortu bitartean, udalek, arazoa konpontzeko beren esku dagoena egiteko konpromezua hartu zuten. Gauzak horrela, eta ia alderdi politiko gehienak euskal presoak Euskal Herriratzearen alde agertu direlako, udal jarraipen batzordeak antolatu dira alderdi politiko eta herriko taldeen artean.

Bailara mailako koordinazioa

Billabonako udal jarraipen batzordea ia astero biltzen da. Alderdi politiko guztiek eta herriko talde askok hartzen dute parte bertan.

Antolatzen dituzten ekintzen helburua, herritarrak informatzea eta sentibilizatzea da. Era berean, euskal presoak Euskal Herriratzearekin ados dauden herritarrek ekimenean parte hartzea lortu nahi dute. Ideologia oso ezberdineko lagunek batera lan egiteak gora behera batzuk sortu dituen arren, erabakiak adostasunez hartzen direla azaldu digu batzordeko idazkariak: "arazo, eztabaida eta errezelo guztien gaineratik, ekimen berriak egiteko erabakiak hartzen ditugu azkenean". Aurrerapausuak uste baino politikago ematen ari diren arren, arazoa konpondu bitartean lan egiteko asmoa dute batzordekideek. Bestalde, aipatzekoa da Billabonako Udalak hilean bisita bat ordaint-

zen dietela herriko preso bakoitzaren familiarrei.

"Errezelo guztien gaineratik, erabakiak hartzen ditugu azkenean"

Billabonako jarraipen batzordearen ekimenez koordinatu dira Asteasu, Zizurkil eta Billabonako jarraipen batzordeak. Gainera, Senideak erakundearen mozioa onartu zuten Larraul, Aduna eta Alkizako udal ordezkariak ere hartzen dute parte bertan. Udalerri bakoitzeko bi ordezkari joaten dira hilero egiten di-



Presoen eskubideak errespetatzeko aldarrikapenak ugarituz. (Andoain)

tuzten bileretara, eta oraingoz, pare bat egin dituzte. *"Ekimen garrantzitsuagoak egiteko, eta bide batez, gure ekintzek oihartzun handiagoa izateko bildu gara"*, azaldu digu bertako partaide batek. Oraingoz, sinadura bilketa hilaren amaierarako bukatu behar dutela, eta Legebiltzarreko giza eskubideetako arduradunarekin harremanetan jarri behar dutela erabaki dute. Horrez gain, abenduaren 22rako manifestaldi bat antolatu dute, eta bien bitartean, prentsak gaiari egiten dion tratamentua aztertuko dute. Bestalde, mahainguru bat eta bailarako presoaren egoeraren berri emateko ekimenak antolatuko dituzte, besteak beste, aurrerantzean.

Asteasu eta Zizurkilgo jarraipen batzordeak ere ari dira lanean. Asteasun udaleko alderdi politiko guztiek hartzen dute parte, nahiz eta herritarren parte hartzea nahikoa eskasa izan. Orain, Joxe Lizaso herriko presoaren isolamenduaz informatzeko ekintzak egiten ari dira. Aurrerantzean, eta beren esanetan, presoak Euskal Herrira ekartzeko duten eskubideaz jendea sentsibilizatzeko ekintzak antolatuko dituzte. Zizurkilgo ere kamisetak, sinadura bilketa, mahaingurua eta gauza gehiago antolatu ditu bertako batzordeak. Herriko talde askok parte hartzen duten arren, udaleko alderdi politiko guztiak ez dira bertako partaide; PSE-EEk eta Eusko Alkartasunak ez dute bertan parte hartzen. EAK udalbatzarretan jendeak agertu duen jarrera mehatxutzailea dela eta ez da joaten jarraipen batzordeko bileretara.

Andoaingo batzordean PSE-EEk parte hartzeko asmoa

Udaleko alderdi politikoek aho batez onartu zuten batzordea da Andoaingoa. Udalbatzak Senideak-en mozioa onartu ez zuelako "PSOE-PNV kartzeleroak" jartzen zuen pankarta zabaltzen zuten senideek udal batzarretan. Horren ondorioz, izan ziren istiluak konpontzeko eta presoan gaiak eztabaidatzeko sortu zen aipaturiko batzordea. Batzordearen funtzioa preso politiko nahiz sozialen eskubideak errespetatzeko lan egitea dela azaldu berri dute prentsau-



Herritarrek eta alderdi politikoek osatzen dituzten batzordeak. (Zizurkil)

rrean, eta azaroan hasiko dute "Andoaindar presoaren eskubidea da: Euskal Herriratzeta" izenburua duen kanpaina. Aipatu beharrekoa da PPk batzordearen alde bozkatu zuen arren, ez duela parte hartuko bertan. Partido Popularreko zinegotzien esanetan, batzordea arazo bat konpontzeko eta presoan hizkuntz, osasun eta antzeko eskubideak errespetatzeko helburu bakarrarekin sortu zen. Beraz, PP ez dator bat presoak Euskal Herrira ekartzeko aldarrikapenarekin. *"batzordeak hartu dituen jarrera politikoekin ez gaude ados"*. PSE-EEk aldiz, batzordean jarraitzeko asmoa dauka, *"preso bakoitzaren egoera aztertu ondoren familiari laguntzeko edota legea betetzen ez bada hori beteazteko prest gaude"*. Hala ere, ez datoz bat azaroan egingo duten kanpainaren leloarekin, *"presoak Euskal Herrira ekartzea teknikoki ezinezkoa delako. Gu hurbiltzearen alde gaude"*. PSE-EEko zinegotzien esanetan, puntu horretan ados egon ez arren, eta batzordeko gainerako kideek nola alderdikideek batzordean parte hartzen jarraitzeko oztoporik jartzen ez badituzte behintzat, batzordean parte hartuko dutela aurreratu digute.

Senideak-en balorazioa

Senideak erakundeak txalotu egiten ditu jarraipen batzordeetan lanean ari diren herritarrak baina *"politikariek euren alderdiei gaiarekiko konpromezu gehiago eskatu behar diete egoera konpontzeko"*, azaldu digute. Era berean,

presoak Euskal Herriratzeko lan gehiago egin behar dela uste dute. Dispersioa duela zortzi urte hasi zen, eta horrekin amaitzea gizarteak berak lortuko duela uste dute; instituzioak presionatu eta jarreraz aldatzea gizarteak lortuko duela esan digute. Izan ere, Senideen helburua presoaren eskubideak direnak betezea da; presoak Euskal Herrira ekartzea lortu nahi dute. Era berean, presoaren giza eskubide guztiak errespetatzea esijitzen dute, eta noizbait, *"gatazka politiko boni irtenbide politikoa ematean, presoak etxean edutikiko ditugu"*.

"Hitzetatik ekintzetara pasa behar da"

Joxe Angel Apezetxea, Agiri, duela gutxi atera da gartzelatik. Dispersioa zuzenerik bizi izan du biltzabonatar honek, eta hiru urtetan lau gartzela ezberdin ezagutu ditu. Dispersioak senideei egiten dien kaltea azpimarratu digu Agirik, *"bidai luzeak eta garestiak egin behar baitituzte ordu erdiko bisitatxo bat egiteko"*. Bestalde, presoek gartzela barruan batera egoteak gartzelako bizimodua eramanez errazagoa egingo lukeela uste du. Presoak Euskal Herrira ekartzea beharrezkotzat jotzen du, eta herrian hori lortzeko giroa badagoela uste du, *"baina hitzetatik ekintzetara pasa behar da"*.

TXIRRINDULARITZA PROFESIONALA BILLABONAN


Azaroak 4 eta 8 bitartean Txirrindularitza profesionala izan da aztergai

Billabonako Irrintzi txirrindulari elkarteak II. txirrindularitzari buruzko jardunaldiak antolatu ditu. Aste batean zehar, prentsa, 1997ko mundiala, medikuntza eta pres-takuntza eta mendiko bizikleta izan dituzte aztergai. Txirrindulariak, kazetariak, diapositibak, hitzaldiak, etab., izan dira Billabonako Gurea zine aretoan. Horrez gain, eta azaroak 17 bitartean Deside

rio Mondeloren argazkiak izango dira ikusgai. Indurainen bizitza profesionalaren ehun eta hiru argazkiak osatutako erakusketa da.

Haseran ziren gonbidatu guztiak etorri ez baziren ere, profesionalen zein entzulegoaren partaidetza handia izan da. Gonbidatu guztien artean hiru aukeratu ditugu eta hauxe da erantzun digutena.

DAVID ETXEBERRIA



David Etxeberria
(23 urte)
Abadiñon jaioa.
Debuta: 1995
Ekipoa: Once

- **Bi urte bakarrik daramatzazu profesional moduan. Zure karrera profesionala oraindik laburra baina oso emankorra izan da. Nola definituko zenuke zure ibilbide profesionala eta etorkizuna?**

- Lehenengo urtean ikasten jardun nuen. Hasieran profesional mundua nolakoa den ikasten aritu nintzen, eta beraz, lehenengo karre-
retan ez nintzen oso ondo ibili. Tour

del Porvenir irabazi ondoren aurrean egon naitekeela konturatu nintzen. Hurrengo urteetan aurreko postuetan egoteko aukera daukat, beti ere lana ondo egin eta gauzak ondo ateratzen bazaizkit.

- **Asko kostatzen al da profesionalen maila hartzea?**

- Gaur egun profesionaletara pasatzea zaila da, denok dakigu hori. Espainian profesional mailan bost talde bakarrik daude, eta dirua dutenak bi dira bakarrik. Beraz afizionatu guztiak ezin dute profesionaletara pasa. Horrez gain, txirrindulari gazteek garaipean lortzea eta taldean laguntasun giroa izatea ezinbesteko dira. Nire kasuan, lana ondo egin dut baina zortea ere izan dut. Bestalde afizionatutik profesionaletara pasatzean mendietan atzematen da aldaketarik nabarmenena, gainerakoan ez da bain ezberdina. Mendiak gogorragoak dira eta gebi-
go sufritzen ikasi behar duzu. Egungo afizionatuak dirurik ez duten profesionalak dira.

- **ONCE taldean zaude. Talde barruan zein da zure lana? Noiz arteko kontratua duzu?**

- Aurten aurrean egon naizenez taldekideei laguntzea izan da nire lana. Euskal bizikletan eta Galizian Alex Zulle edota Laurent Jalabertentzako lana egitea izan da nire bete-
bebarra. Beraiek ez zeudenean berriz,

garaipea lortzearen egin dut lan.

Kontratuari dagokionez, beste bi urterako kontratua sinatuko dut On-
cerekin.


- **Egunotan Indurain ONCEra joango dela irakurri eta entzun dugu. ONCEko txirrindulari gisa, nola ikusten duzu auzi hori?**

- Entzun denaren arabera Indurain Oncera joango dela pentsatzen dut. Indurain Oncera etortzen bada, enpresari publizitate ona egingo dio. Hala ere, txirrindularientzat ez dakit bain ona izango ote den. Jalabert profesional handia da eta erabakia ongi hartuko du. Zulle desberdina da eta beharbada zeozer gerta daiteke bien artean.

- **Aurtengo emaitzak ikusita promesa baino txirrindulari profesional on bat zara, jada. Hurrengo urtea zaila, gogorra izango da. 1997rako zein helburu jarri dizkiozu zure buruari?**

- Nire helburuetako bat buelta handi bat egitea da, "Vuelta a España" alegia. Helburu pertsonala berriz, Donostian egingo den Munduko txapelketan parte hartzea eta postu on bat lortzea izango da. Gainerakoan, buelta txikitetan edota lasterketetan garaipean bat lortzea gus-
tatuko litzaidake. Taldean Jalabert eta Zulle edukita eta Indurain ere etortzen bada, berarentzat lan egin behariko dut.

ABRAHAM OLANO



Abraham Olano
(26 urte)
Anoetan jaioa.
Debuta: 1992.
Ekipoa: BANESTO

- Zerk animatzen zaituzte borrelako jardunaldietan parte hartze-ko?

- Gu ere nire garaian gustura etor-
tzen ginen borrelako bitzaldietara.
Orain, guri tokatzen zaigu bitzaldia

eman edota bertan egotea. Gustura
egiten dugu gainera.

- Afizionatutik profesionaleta-
rako bidea zaila izan zenuen. Zer
esango zenieke profesionaletara
pasatzeko zain dauden txirrindul-
lariet?

- Borrokan jarrai dezatela esango
nieke. Momentu honetan edozein lane-
tan gaitzak zail daude. Gure babesleak
gutxi dira, guztiontzat lanik ez dago.
Hala ere, borrokan segiz gero, azke-
nean, aurrera aterako dira.

- 1992an hasi eta 1995ean erre-
pide sailan Munduko txapeliduna
izan zara. Inoiz pentsatu al zenuen
borrelako garaipenik lortuko ze-
nuenik?

- Lehendik ere zenbait lasterketa ira-
bazi nituen baina, ezin da jakin bo-
rrelako lasterketa garrantzitsua noiz
irabaz daitekeen. Gogoia, ilusioa, pres-
takuntza eta Hori guztia edukiz gero
zerbait garrantzitsua egitera iritsi zai-
tezke.

- 1992tik 1995era arte Estatu
mailako lasterketetan hartu duzu
parte. 1995tik aurrera Munduko
txapelketa, Normandiako eta Fran-
tziako tour-ean ere irten zara, bes-
teak beste. Bada korritu ez duzun

eta korri egitea gustatuko litzai-
zuken lasterketarik?

- Ez. Momentu honetan ilusio guz-
tiak Frantziako tourrean dauzkat. Fro-
garik inportanteena eta gustokoena
dut. Horretarako preparamen ari naiz.

- 1997rako zein dira zure leben-
tasunak?

- Lehenetsuna Frantziako tourra
da. Gero ikusi egin behar da zer pres-
tatuko dudan. Hala ere, seguraski,
Donostiako Mundialean eta Espainiako
biran ere parte hartuko dut.

- Gaixotasun eta istripuen on-
doren ongi zaindu zaituzte?

- Istripu guztiak dira gogorrak; ez
istripuaren unea, gerokoa baizik. Ora-
in ordea, egoera onean nago, baina
galdutako guztia errekuperatzea asko
kostatzen da.

- Zer esango zenieke euskal afi-
zioari?

- Bizikletan ibiltzen direnei bo-
rrokan jarrai dezatela esango nieke.
Afizioari berriz, animatzen jarrai de-
zatela. Kanpotik datozen txirrindul-
ariak oso gustura etortzen dira Euskal
Herrira bertako afizioa ona delako eta
asko animatzen dituztelako. Beraz,
jarrai ezazue bai ni nola gainerakoak
animatzen.

JAIME UGARTE



Txirrindularitzaren
euskal federazioko
lehendakaria

- Noiztik eta nolatan zara eus-
kal federazioko txirrindularitzaren
lehendakaria?

- 1978an Gipuzkoako federazioan
sartu nintzen eta mundiala Euskal He-
rrian egiteko eskaera egin genuen. Gi-

puzkoako federazioan bost urtetan egon
nintzen, eta 1986an berriz, euskal fe-
deraziora joan nintzen. Euskal federa-
zioko lehendakari gisa, berriro ere mun-
diala gure herrian egitearen aldeko es-
karia luzatu nuen. Eskaera zenbaitetan
onartu ziguten arren, Valladolid eta Ka-
talunian egin ziren mundialak, beraiek
borrela eskatuta. Azkenean, 1994an,
97ko mundiala Donostian egitea onar-
tu zuten.

- Espainiako federazioaren le-
hendakaria izateko proposamena
egin dizute. Zer erabaki duzu eta
zergatik?

- Oraindik ez dut ezer erabaki. Es-
painian karguen salerosketa askotan
gertatzen da: euskal federazioan noble-
agoak gara. Horrezaz gain, Espainiako
federazioa ekonomikoki oso egoera txar-
rean dago, eta beraz, bertako lehen-
dakaria izatea aukeratuko banu,
egoerari irtenbidea bilatzeko izango li-
tzateke. Espainiako federazioan lehen-
dakaria hautatzeko asuntzaldia osatu eta
nortzuk bozkaturiko diban jakiten du-
nean erabakiko dut zer egin.

- Zein egoeretan aurkitzen da es-
painiar txirrindularitza? Eta euskal
txirrindularitza?

- Euskal txirrindularitzaren egoera
oso ona da. Espainian dauden lauro-
geita hamar txirrindulari profesionale-
tik erdiak euskaldunak dira. Amateur
mailan gainera, egoera faboragarria-
goa da. Espainiar txirrindularitza or-
dea oso gaizki dago. Beraz, Espainiako
federaziora joaten banatuz, espainiar txi-
rrindularitza hobetzeko izango da.

- Zergatik 1997ko Munduko txa-
pelketa Donostian?

- Hogeita hamaitika urte dira Mun-
duko txapelketa ez dela gure herrian
egin. Kontutan hartu behar da gainera
esperientzia handia dugula klasika,
Euskaldiko sei orduak, Euskal Herriko i-
tzulia eta bestelako ekitaldiak presta-
tzen, eta hori garrantzitsua da. Donos-
tia Mundialaren egoitza izango da, eta
jende guztia lama nola egiten dugun
begira egongo da, beraz, abalik eta
ondoan egin behar dugu. Orain arte
egin den Munduko Txapelketarik one-
na izango da.

Azaroan lau urte bete dituen Larramendi Kultur Bazkunak bere lan dinamika, arazo ekonomikoak eta Aiurriren etorkizuna aztertu zituen iraileko Biltzar Nagusian. Aiurri aldizkariaren eskualde nahiz edukin informatiboaren egokitasuna eta defizitari aurre egiteko irtenbideak izan ziren bileran aztergai.

LARRAMENDI KULTUR BAZKUNAREN III. BILTZAR NAGUSIA

**Egungo egoera eta Aiurri aldizkaria
aztergai nagusienak**



Billabonan ospatu zen Larramendi Kultur Bazkunaren III. biltzarra

Bazkunako Zuzendaritzak aurrez jakinarazi zuen Kultur Bazkuna eta Aiurri aldizkariaren etorkizuna zalantzan zegoela, gehienbat, arazo ekonomikoak zituztelako. Beraz, III. Biltzar Nagusian Aiurri aldizkariaren egoera azaltzea, lan egitaraua definitzea eta Zuzendaritza Batzorde berria hautatzea ziren helburuak.

Larramendi Kultur Bazkunaren lehendakaria den Jon Unanuek azaldu zuenez erreflexioa egiteko garaia da. *"Sei berrietako ekimena izateko bazkide kopurua txikia da oso. Gebienok helduak gara eta zenbait ekintzetarako ekimen gutxi dugu. Gazte jendeak ez du guk nahi ge-*

nien bezalako kontakturik izan proiektuarekin. Horrek erreflexionatzera eraman behar gaitu".

***"Erreflexioa
egiteko garaia
da"***

Kultur Bazkunak lan egitarau zabala onartu du, nahiz proiektu handiena eta gehienentzat ezagunena Aiurri izan. Aldizkariak gain, Rikardo Arregiri buruzko saiakera argitaratzea, Rikardo Arregi euskal prentsaren hemeroteka irekitzea, eta euskararen soziolinguistikari

buruzko ikastaroa eskeintzea erabaki dute. *"Beterriko liburua"* literatura aipamena antolatzea eta euskal kultura gure mugetatik kanpo ezagutzera emateko *"Kulturak elkarrengana"* proiektua jarriko dituzte ere martxan. Horretarako, bazkuneko bazkideen partaidetza beharrezkoa izango da.

Aiurriren etorkizuna

Batzar Nagusiko aztergaia nagusia Aiurri aldizkaria izan zen. Bilerara hurbilduriko bazkideek, aldizkariaren lana, kostua, eredu informatiboa eta biltzen duen eskualdea izan zituzten eztabaidagai. Aiurriren autofinantziazio eza eta publizitatearen eskasia izan ziren aztertuturiko

puntu garrantzitsuenak. Sei herrietako aldizkaria izan ordez. Andoainek bere aldizkari propioa izateko proposamena ere egin zuten. Bazkideen gehiengo eskualdeko aldizkaria izatearen alde agertu zen, baina zalantzak argitzeko eta irakurleen iritzia jasotzeko, Siadeco enpresari azterketa lan bat eskatzea erabaki zuten. Siadecok herritarrei egingo dien inkestan, aldizkariak hartzen duen eskualdea gogoko duten ala ez, eta arazo ekonomikoari aurre egiteko Aiurri aldizkaria ordaintzeko prest egongo liratekeen ala ez galdetuko diete. Inkesta lauhun pertsoneri egingo diete, horietatik berrehun eta berrogeita hamar inguru harpidedunak izango direlarik.

Horrezaz gain, merkatariei inkesta berezitua egingo zaie. Merkatariek Aiurri aldizkaria ezagutzen ote duten, publizitaterik egiten duten ala ez, eta zer arazoengatik egiten duten aztertuko dute. Azkenik, eskualdeak publizitatea saltzeko garaian eraginik ba ote duen aztertuko dute inkesta horretan.


“Bazkunaren iharduera motela izan da orainartean”

Aiurri aldizkariak gain, Larramendi Kultur Bazkunaren iharduera moteltzat jo zuen Jon Unanue lehendakariak: *“Asteasu eta Larraulen ezezik, gainerako herrietan ez da ekintza gehiegirik egin. Asteasun artisaun erakusketa egin berri da. baina beste herrietan ez da ekintza askorik antolatatu”*. Hurrengo lanen artean azaroan hasiko den *“Beterriko liburua”* aipamen literarioa izango da. Urtean zehar euskal literaturagintzan argitara emandako lanik bikainenak nabarmentzea izango du xedea. Bertako epaimahaiak, euskarazko literaturagintzan edozein alorretako lana hautatu ahal izango du, muga eta baldintza bakarra urtean argitara emandako lana izatea izango da. Era berean, Aduna, Andoain, Asteasu, Larraul, Billa-bona eta Zizurkilgo herritarrek Aiurri aldizkariarekin batera etxean jasoko duten orritxo baten bidez bere proposamena egin ahal izango diote epaimahaiari. Epaimahaia, Jon Unanue epaimahaiburuak, Eloi Egibar eta Joseba Erkizia mahaikideak, eta Xabier Irisarri idazkariak osatuko dute. 1997ko martxoak 15ean emango dute epaia. *“Kulturak elkarrengana”* proiektua berriz, 1997 urtean jarri nahi dute martxan. Eskal kultura gure mugetatik kanpo ezagutzera ematea eta kanpoko

kulturak guregana hurbiltzea izango du helburu.

Abenduan aparteko Biltzar Nagusia

Horietaz gain, urte amaierarako Siadecok eginiko inkesten emaitzak ezagun direnean udala, bazkide eta irakurleei datu horien berri emango zaie. Horrela, urte amaieran bilduko da berriro Larramendi Bazkunaren Biltzar Nagusia, aparteko bilera batean. Bertan, Siadeco enpresaren eskutik orain martxan jarriko den galdeketa onorioak aztertu eta Aiurriren etorkizuna erabakiko dute. Gai hori baino ez da izango eta Andoainen bertan egingo da aparteko IV. Biltzar Nagusia.



Xabier Irisarri idazkari berria

AHOLKULARITZA ARTEZKARITZA
IRAOLA
ENPRESEN AHOLKULARITZA:
FISKALA, DIRUKONTUENA,
JURIDIKOA, LABORALA,
ASEGURU OROKORRAK

Nagusia, 37
Tlf. 69 27 63
Fax 69 27 74
20150 BILLABONA

Orremendi Kirolak

**AUKERA ZABALA
KIROL ARTIKULUETAN**

JUAN BAUTISTA ERRO, 2 - TELF. 59 18 06 ANDOAIN

Jose Ramon
TABERNA

PINTXO EDERRAK !!

Kale Nagusia, 16 - ANDOAIN

ALOTZ IZOZKINAK

Kaleberria, 9 - ☎ 59 07 06
ANDOAIN


LEHENENGO JAUNARTZEA. 1951.



- 1. Milagros Larrarte
- 2. Mari Karmen Izagirre
- 3. Inmaculada Garcia
- 4. Maite Vidanor
- 5. **Milagros Arratibel**
- 6. Marisol Manzanos
- 7. Maite Etxabarri
- 8. Maria Isabel Elizegi
- 9. Amalia Telleria
- 10. Pili Saez
- 11. Sara Etxabe
- 12. Arantxa Zendoia

- 13. Arantxa Beñaran
- 14. Jose Mari Urdanpilleta
- 15. Jose Inazio Alonso
- 16. Iñaki Zarauz
- 17. Jon Alzaga
- 18. Alberto Oiarzabal
- 19. Pedro Mari Arana
- 20. Jose Manuel Arrillaga
- 21. Marisol Salazar
- 22. Anizeto Esnaola
- 23. Alejandro Subijana
- 24. Joakin Beñaran

- 25. Jose Inazio Ruiz
- 26. Karlos Subijana
- 27. Tomas Usabiaga
- 28. Pablo Sansebastian
- 29. Jose Jabier Garcia
- 30. Jose Luis Hijona
- 31. Jose Luis Oiarbide



1951. urteko apirilaren zortzian hartu zuten argazkiko neska mutikoez beren lehen jaunartzea. Billabonako Jesusen Bihotza elizan egin zuten jaunartzea. Ondoren, eta eguna ongi ospatzeko, bazkaria egin zuten beren senitartekoez. Opariak ere jaso zituzten, baina ez egun egiten diren bezalakoak; errosarioak eta antzeko opariak egiten ziren orduan. Gainera, haurrari oparia ematen zionari eskumuturrean gurutze bat egin eta gero, musu bat ematen zion jauna hartu berri zuten haurrak eskertza moduan.

Argazkia, bertakoen izen-abizenak eta informazioa **Milagros Arratibel** zizurkildarrak eman dizkigu.



Anartz Iturbe, Beñat Esnaola eta Eneko Gorostidi Billabonako Txiskolariak.

- Koadrilakoak zarete ala telebistarako elkartutako hirukoa baino ez zarete?

- Hirurok koadrila berekoak gara. Niri (Anartz) telebistatik deitu zidaten, eta hiruko bat osatuz gero, berriro Txiskolara joateko aukera ematen ziguten. Horrela, koadrilan komentatu nuen eta batzuek ezezkoa esan arren, gu hirurok elkartu eta telebistara joan ginen.

- Nolatan aurkeztu zineten Txiskola programara?

- Lehen esan bezala gonbitea telebistatik etorri zitzaigun, eta beraz, guk taldea osatzea baino ez dugu egin. Lehen pausua, programara joatea alegia, ez genuen guk erabaki. Hala ere, aukera hori eskaini ziguten eta guk aurrera egin genuen. Gure helburua, koadrilakoek bidai bat egin abal izateko dirua lortzea izan da. Bidaiak animatu gintuen programara joateko.

- Nolako esperientzia izan da?

- Beno, Anartz lehen ere izana da, eta beraz, bazuen programaren gorabeheren berri. Gu, ordea, taldea osatzeko joan ginen. Lotsa piska bat pasa eta aurrera! Orain, okerrrena, telebistan ateratzen garen eguna da: denek ikusiko baitute zer egin dugun.

- Kamara aurrean txisteak kontatzea erraza al da?

- Ez, inolaz ere ez. Afarietan lagun artean txisteak kontatzea, edota hotz-hotzean kamara bati eta ezagutzen ez duzun jendearen aurrean txisteak kontatzea ez da gauza bera.

- Zer egin duzue programan?

- Lasarteko biru mutil genituen arerio eta berriak irabazi zuten. Hala ere, ondo pasa dugu.

- Telebistan atera ondoren afarietara eta festetara gonbidatzen al zaituzte?

- Niri (Anartz) gonbidatu izan naute. Afaritan txisteak kontatzen ibili izan naiz, eta borregatik deitzen didate. Aurrez Txiskolan atera nintzenean, semifinaletara iritsi ginen ordungo taldea, eta bebarbada borregatik deitu izan naute.

- Kontatuko al diguzue txisteren bat?

- Bi gizon putzu batean lanean ari dira eta bat erori egiten da.

Galdetzen dio besteak:

- Minik hartu al duzu?

- Oraindik ezzzzzzzzzz!

PERTSONAIA EZKUTUA



Aiurriren irakurleek asmatu beharreko pertsonaia berria duzue zirriborroaren atzean ezkutatuta. Beti bezala gure pertsonaia ezaguna da, eta beraz, ez zaizue zaila egingo nor den asmatzea.



Saria bikaina da oraingo honetan ere: **Andoaingo Video Box bideo-klub-ak "Liberad a Willy 2 y su amuleto"** pelikula eman digu oparizat.

Irabazleak pelikula hori bere etxean, lagunekin ikusteko aukera izango du.

Lehiaketan parte hartu nahi duzuenok bidal itzazue zuen gutunak honako helbidera lehenbailehen: **Aiurri aldizkaria, Doktor Huizi 15,1 eskubia, 20140 Andoain.** Idatz ezazue zuen telefonoa zuekin harremanetan jartzeko.

VIDEO BOX

VIDEO - TV - HIFI

Azken nobedadeen salmeta eta alokairu denda

PANASONIC
TECHNICS
HITACHI

JVC
PHILIPS
GRUNDIG

Nafarroa plaza, 4 - ☎ 59 27 05
ANDOAIN

MUSIKA

ANDOAIN

Azaroak 19: "Alizé" boskotearen musika emanaldia. Olagáin auzoko Musika Etxean, 19.30etan.

Azaroak 20: Udál musika eskolaren kontzertua. Santa Krutz parrokian, 20.00etan.

Azaroak 21: Arkaitz Mendoza Rodrigozezen piano kontzertua. Olagáin musika etxean, 19.30etan.

Azaroak 22: "Olagáin" txistu eskolako ikasleek. "Olagáin" txistulari bandak, tronpeta taldeak eta Susana Cencilloren musika emanaldia. Santa Krutz parrokian, 20.00etan.

ERAKUSKETAK

EMAKUMEA KARTELETAN

Pekingo IV. konferentzia, munduko emakumeak eta Emakunderen kartelak:

Azaroaren 25, 26 eta 27an, Asteasun, Lizardi etxean.

Azaroaren 28 eta 29an, Adunan, Kurtur Aretoan.

Ordutegia: 17.00tik 20.00etara.

ANDOAIN

Azaroak 22-abenduak 1: Pintura lanak ikusgai Kultur Etxean.

BESTE

ZIZURKIL

Azaroak 16: Garmendia eta Lizaso bertsolariak eta trikitilari gazteen konpainian Bertsolari eguna ospatuko da Zizurkilgo Alkartetxean.

BILLABONA

Azaroak 18: Ipuinaren ordua Itziar Zubizarretaren eskutik. Udál liburategian, 18.00etan.

IBILALDIAK

ANDOAIN

Azaroak 10-17:

XXXIII. MENDIZALE ASTEA

Azaroak 17: Babarrun jatea.

Azaroak 24: EUSKALDUNA mendigoizale taldeak antolatuta Biclarrayera ibilaldia. Iparlako Meatka eta Errazura iteera.

BILLABONA-AMASA

Azaroak 24: IV. Mendiatioia, Amasako ingurutetan zehar, 11tan.

BILLABONA

Azaroak 25-abenduak 1: XII MENDIZALE ASTEA

ANTZERKIA

ANDOAIN

Azaroak 23: "El florido Pensil" antzezlan. La Salle antzokian, Euskaraz.

HITZALDIAK

ANDOAIN

Azaroak 15: Andoaingo EAJ-PN-Vek antolaturiko "Politika Plazara" hitzaldien barruan ROSA AGUILAREN hitzaldia. Gaia: "Ezkerra eta nazionalismoak". Urigáin Kultur Etxean, 20.00etan.

ZINEMA

BILLABONA GUREA ZINEMA

AZAROKO PELIKULAK

- *Jóvenes y brujas*
- *Profesor chiflado*
- *Reacción en cadena*
- *Tiempo de matar*

Zertan dabil Ertzaintza Billabonan?

Aski harrigarria suerta daiteke zenbaitentzat baina azkenaldian Billabonan Ertzaintzaren jarrera ikusi ondoren galdere hau herritar orori lizaztea erabaki dugu eta bereziki alderdi politikotako ordezkariak. Ondoko 3 datu edo gertaera objektiboko galdere honen zentzua hobekiago kokatzen lagunduko digute:

1.- Urriaren 11n Ertzaintza Billabonako Plazan agertzen da gaueko Sak inguru: une horretan bertan Gestorak deituta eta Alex Uzkiano herritar euskal preso politikoa 10 ure bete berri dituela salatuzko mobilizazioa. Billabonako udaletxeako arkupeetan kokatuta eta armategi oso bat eskutatzen zutela egon ziren.

2.- Astebete beranduago, herritar zenbait gurekin harremanetan jartzen dira, esanez, goizaldeko 3ak aldera ertzainek herrian zehar gure propaganda informatiboa kentzen ibardun zutela. Kendu, euren kotxeetan sartu eta eramán.

3.- Urriaren 18an, gure taldeko 3 kide erretentituak, identifikatuak eta fitxatuak izan ziren. Presoak Euskal Herrira zioen pankarta bat ipintzen ari ziren garaian.

Honen aurrean Amnistiaren aldeko komiteetik zenbait gogoeta:

1.- Zertan ari da Ertzaintza, hots, PNV-ren polizia politikoa. Udalean alderdi politiko eta talde zenbait lanean diharduenean Presoak Euskal Herriratzearen alde?

2.- Billabonako Udalak honelako egoerak baimendu behar al ditu? Edota Udalak kalean Eskubide honen inguruan lan egiten duenean ere Ertzaintzak identifikazio eskatuko ote digu?

3.- Udalak aurrera begira honelako kasu gehiago gerta ez daitezen zein ekinbide aurrera eramateko asmoa du?

Besterik gabe, gure aldetik Amnistiaren aldeko borrokan tinko jarraitzeko konprometua eta bidean egokitzen zaigun errepresio guztia aurre eginik, lehen helburua Presoak Euskal Herriratzea, badirudi Ertzaintzak ez duela argi oraindik hau, beraz, argi biezatxo argitu behar diotak!!!

Leiro hauek erabiltzen ditugu, gose greba mugagabean dauden presoak gure maiztasun guztia igortzeko eta baita GERBA, ALEX eta Billabonako errefuxiatu guztiak. Aupa lagunok!

BILLABONAKO AMNISTIAREN ALDEKO KOMITEA

KOMIKIA





295 BAZKIDE BEHAR DITUGU

Larraemendi Kultur Bazkuneko bazkide izan nahi baduzu, bete ezazu, mesedez, behean datorren eskaera-orria eta bidali edo eraman egoitza orokorrera (Dr. Huizi kalea, 15-1). Bazkide den ezagunik baduzu, nahi izanda, hari emaziozu, eta berak helaraziko digu.

NIK ERE BAZKIDE IZAN NAHI DUT

DEITURAK.....IZENA.....
HELBIDEA.....HERRIA.....POSTA KODEA.....
.....JAIOTERRIA.....JAIOTEGUNA.....
PROBINTZIA.....N. A. zkia:.....
BANKU EDO AURREZKI KUTXA.....
KONTU KORRENTEAREN ZENBAKIA (20 digito).....

ZEIN URTEKO KUOTA ORDAINDU NAHI DUZU?

ARRUNTA (7.500) — FAMILIARRA (10.500) — BORONDATEZKOA (•)

ZENBAT TXANDATAN ORDAINDU NAHI DUZU?

TXANDA BAKARREAN — BI TXANDATAN

(•) Borndatezko kuotaren kopurua norberak aukeratu behar du. Kuota arruntatik gorakoa izan liteke, edo, arrunta ordaintzeko ahalmenik ez dutenentzat 7.000, pezetatik beherako edozein kopuru.

INSTALA EZAZU KIDEGASEKIN ZURE ETXEKO BEROGINTZA ERDI PREZIOAN!

Urtarrilaren 20an egingo dugun zozketan parte hartzeko instala ezazu gurekin zure etxe berogintza eta prezio erdia ordaintzeko aukera izango duzu.

(Maitzaren 3-an izatekoa zen zozketa Urtarrilaren 20ra aurreratzen da)




**KIDEGASEKO BEZEROEN
ARRETARAKO ZERBITZUA**

900 121 775

Ama Kandida et. DENAC 115

GASA INSTALATZEAZ GAIN AHOLKU ETA GOMENDIOAK ERE EMATEN DIZKIZUGU



2 SUTAN JARRITAKO
ONTZIAK ZIKINTZEN
BAZAIKIZU,
ERREKUNTZA OKER
BATENGATIK DA.
APARILUA
ERREBISATZEKO DEITU
ZURE TEKNIKOARI



GASA ETA BEROGINTZA

ZURE GAS AHOLKULARIAK

*Euskara
indarrean
jarriko
dugu...*

*zuk indar
egiten
badiguzu!*

HERRITARREK
ETA UDALAK
ELKARRI EUSKARAZ
EGITEKO
KANPAINA.

*Egun gutxi barru
izango duzu
kanpaina honen
berri zehatza.
Bisita egingo
dizugu
zeure etxean,
den-dena
esplikatzeko eta
zure erantzuna
jasotzeko.*

APUNTA ZAITEZ!
ZURE INDARRA ERE
BEHAR DUGU!

